

# Berrigarra



## Santu Martirixak

Baserriko produktu eta  
tresnak zapatuan Osintxun

Haurren heziketan jolasa  
denez garrantzitsu,  
**Xipizaro ludoteka  
eskura daukazu!**

3 urtetik 14ra bitarteko neska-mutikoendako




**Inauteriak:**  
inauterietako askari handia.



**Gabonak:**  
gabon eskea Osintxun.



**Txangoa:**  
hiru eguneko irteera Arratera.



**Udalekuak:**  
barruko jolasak, irteerak, kirolak, jolasak...

**XIPIZARO**

Bergaran astebarruan: 17:15etik 19:30era

Osintxun astebarruan: 17:15etik 18:45era

Larunbatetan Bergaran eta Osintxun:

10:00etatik 13:00etara

**Informazioa: 943 76 23 76**



**BERGARAKO  
UDALA**



# Historiaren metafora sinplea

Iñaki Gabilondo

**N**onbaiten irakurri nuen boterea bibolin baten modukoa dela, ezkerrekin hartu eta eskuinarekin jotzen baita. Ez dakit nork idatzi zuen, baina uste dut horma batean agertu zela. Nik ez dakit, egia esan, bibolina ezkerrekin hartu eta eskuinarekin jotzea posible den. Dena den, argi dago gaur egun boterea dutenek ezkerrekin hartu zutela eta oraindik argiago eskuinarekin ari direla jotzen. Gainera, esango nuke erabiltzen duten partitura bera ere zaharkitua dagoela; zaharkitua bai, denboraz kanpo. Gehienbat onartzen ez duenarentzat. Garai jakin batean idatzitako partitura da eta inolaz ere ez garai guztietarako bali duena.

Kontuan hartu beharko genuke noiz, nola, zertarako eta noren onarpenarekin idatzi zuten. Esateko modukoa da partitura hau idatzi zutenean jende asko musika entzutearen debekuaz bizi zela. Orduko euskaldunek eginak zituzten partiturak lapurtu, erre eta suntsitu egin zizkieten. Horien defentsan altxatu zirenak zigortu egin zituzten, itzalpean sartu, torturatu eta hil. Beldurraren poderioz onartu zutenei sokarik gabeko bibolinak eman zizkieten, entseatzen joateko. Aukeran, askok bigarrena onartu zuten, beste askok amerike-

tara alde egitea deliberatu zuen bertako erritmoak dantzatzerara. Momentua iritsi zenean, partitura berria idatzi eta bere doinuak barreiatu zituzten penintsula osoan. Euskal Herrian sokak banatu zituzten bibolin sokagabeak zituztenentzat. Soka berriak jarri eta partitura berria ikasi beharra zeukaten, ez besterik. Hortik aurrerakoa partitura interpretatzea zen, baina ezin zen aldatu, inondik inora. Hori ziurtatzeko musika zuzendari bereziak zituzten leku estrategikoetan kokatuta; batzuk txapela okerra zuten eta beste batzuk gurutzeak zintzilik. Partitura interpretatzeari ekin zion jende askok musika egokia jotzeko aukera ere bazegoela komentaturik. Batzuk laster konturatu ziren

interpretatzeak ez zuela ezer aldatzeko aukera ematen; beste batzuk interpretatziotan jarraitzea deliberatu zuten. Bien asmoa garbia zen, inposatutako partitura horrek zekarren musika aldatzea; eta inposatu diot, ez zuelako onarpen irmo eta egokirik jaso, Euskal Herrian bederen. Partitura idatzi zutenek hau ikusita estrategia aldatzea pentsatu zuten nonbait: beraien partitura jotzeko musikarientzako Euskal Herrira egokitzea. Orduan hasi ziren kanpoko musikariak etortzen, bibolinak ongi afinatu eta partitura hori jotzeko. Eta kanpokoak diot, ez horregatik mesprextatuz, baina bai hemengo errealtate inposatua bultzatu eta jarraitzea aurpegiratuz.

Dagoeneko, esan beharrik ez dago partitura ditxosoa konstituzio madarikatua dela. Esan beharrik ez dago, onartu ez zutenak estatuko kartzeletan sakabanatuta daudela. Esan beharrik ez dago, konstituzioa interpretatzea intxaur oskolak beste batentzat apurtzea baino ez dela, eta esan beharrik ez dago Euskal Herriak bere izaera, bere hizkuntza eta bere kultura duela. Gutxienez, eta maiatzaren 13ko zozketan irabazten duenak irabazten duela, ez dezagun guzti hau ahantzi. Bakoi-zari berea!<

«Nonbaiten irakurri nuen boterea bibolin baten modukoa dela, ezkerrekin hartu eta eskuinarekin jotzen baita. Nik ez dakit bibolina ezkerrekin hartu eta ezkerrekin jo daitekeen»

barruan



**Amaia Agirre**

Elikagaien teknologoa

«Badago izoztu ezin daitekeen produkturik: patata, tipula, esnea, yogurtak, maionesa...»

11.



**Mikel Urdangarin**

Abeslaria

«Indezisioz beteta dagoen gazte bat naiz; humano bat, bere bertute eta miseriekin»

13.



**Txonan Gallastegi**

BKEko jokalaria

«Gutxienez, 45 puntu lortu behar ditugu mailari eutsi ahal izateko»

18.

hi, gazte!



## BEKAK

**Prestakuntza.** Mapfre Medikuntza Fundazioa, 17-40 urte bitartekoak, gutxitasun fisikoren bat dutenak. Prestakuntza arloak: automozioa, aluminiozko zurgintza, kontabilitatea, kalitate industrial, ebanista, elektrizitate industrial, elektronika, oinarriko informatika... Epea: apirilak 16.

**Ikus-entzunezkoak.** Autor Fundazioa. Lizenziadunak. Ikus-entzunezko, antzezlan, musika edo koreografia sorkuntzako ikaskuntzarako bekak, atzerrian, 2001/2002 ikasturtea. Epea: maiatzak 15.

## IKASTAROAK

**Interpretazioa.** Sarobe Arte Eszenikoen Zentroa. Kantu eta interpretazio ikastaroa Sarobe zentroan. Ikastaroa martxoaren 5ean hasiko da. Epea: tokiak bete arte.

**Murtzian.** Deposit Art. Komediantearen eskolako ikastaroak. Epea: martxoak 5.

## SARIAK

**Komikira.** Irungo Udala. 16 urtetik 30 urtera bitartekoendako. V. Irun Gaztea komiki banda lehiaketa. Epea: maiatzak 25.

**Argazki lehiaketa.** Setem Hego Haizea. 'Garapenerako lankidetzat?' argazki lehiaketa. Zer da zuretzat garapenerako lankidetzat gaiarekin. Epea: apirilak 11.

## LAN-ESKAITZAK

**Informatika.** Kantabriako Unibertsitatea. Batxilergoa edo baliokidea. Informatika espezializaziorako bost toki. Epea: martxoak 5.

**Administrari laguntzajilea.** Lizarrako Udala. Eskola graduatua edo baliokidea. Epea: martxoak 21

**Ongizate Zerbitzuak.** Valentziako Udala. Diplomadunak edo baliokideak. Ongizate Zerbitzuetako erdi mailako 20 teknikari. Epea: martxoak 10.

**Jarduera teknikaria.** Irungo Udala. Arkitekto teknikoa edo ingeniari teknikoa. Epea: martxoak 5.

**Igeltserotzako ofiziala.** Zangozako Udala. Eskola-graduatu edo baliokidea. Epea: martxoak 9.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekie, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

**BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA:** Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztioei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



### Begibiur

Begi okerra.  
- Bata bizarduna  
zan da bestia begibiurra.

## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Otsailak 22, eguena</b>	14 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
<b>Otsailak 23, egubakoitza</b>	9 °C	-1 °C	8,1 l/m <sup>2</sup>
<b>Otsailak 24, zapatua</b>	8 °C	7 °C	7,7 l/m <sup>2</sup>
<b>Otsailak 25, domeka</b>	8 °C	1 °C	6,4 l/m <sup>2</sup>
<b>Otsailak 26, astelehena</b>	13 °C	1 °C	1,6 l/m <sup>2</sup>
<b>Otsailak 27, martitzena</b>	4 °C	2 °C	32,8 l/m <sup>2</sup>
<b>Otsailak 28, eguaztena</b>	6 °C	1 °C	14,2 l/m <sup>2</sup>

## mezak

**Santa Marina**  
Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:30.  
**San Pedro**  
Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.  
**Osintxu**  
Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.  
**Eloso**  
Domekak: 10:00.  
**Ubera**  
Domekak: 10:30.  
**San Juan**  
Domekak: 11:00.  
**Basalgo**  
Domekak: 13:00.  
**San Prudentzio**  
Domekak: 10:30.

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.  
**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

**Labegarieta**  
Domekak: 11:00.  
**San Lorenzo**  
Zapatuak: 20:00.  
**Angiozar**  
Domekak: 11:00.  
Eguakitzak: 19:00.  
**Monja Zaharrak**  
Domekak: 18:00.  
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.  
**Mizpirualde**  
Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.  
**Antzuola**  
Domekak: 09:00, 11:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.  
**Uzarraga**  
Domekak: 10:00.

## urbanoa

**San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegarieta/Olabarretik irteerak**  
07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

**EGUAKITZA 2:**  
PUY. Barrenkalea 25..... 943 76 16 87  
**ZAPATUA 3:**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05  
**DOMEKA 4:**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05  
**ASTELEHENA 5:**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63  
**MARTITZENA 6:**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15  
**EGUAZTENA 7:**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74  
**EGUENA 8:**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

### OGIA

DOMEKA 4..... Ogizun

### TELEFONOAK

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) ..... 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa. .... 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa. .... 943 76 62 46  
Ertzaintza. .... 943 76 53 40  
Osasun Etxea ..... 943 76 24 40  
Asepeyo ..... 943 76 16 43  
Pakea ..... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23  
Odol emaleak ..... 943 76 16 24  
Alkoholiko anonimoak. .... 943 76 51 06  
GARRAIOAK

Taxiak ..... 943 76 19 50  
**UDALA**  
Bergarako udaletxea ..... 943 77 91 00  
Antzuolako udaletxea ..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32  
Igerilekuak. .... 943 76 20 51  
Kultur Etxea. .... 943 77 91 58  
Liburutegia ..... 943 77 91 62  
Kirolegia ..... 943 76 56 41  
Mizpirualde Egoitza ..... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia ..... 943 76 14 92  
Erregistroa ..... 943 76 13 15  
Jardun ..... 943 76 36 61  
Idolaz ..... 943 76 65 08  
Jubilatuena Etxea. Bergara. .... 943 76 21 40  
Antzuolako jubilatuena elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea ..... 943 76 26 85  
Bedelkar ..... 943 76 04 68  
Akulu AEK ..... 943 76 05 18  
Udal euskaltegia ..... 943 76 44 53  
Bergarako notaritza ..... 943 76 10 73

**zorionak!**



**Gorka Agirrezabal**  
2an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak eta  
Maider.



**Ibane Baseta**  
8an 12 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Miren Manuel**  
3an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Isabel Gurrutxaga**  
7an 85 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Alaitz Urkiola**  
5ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Izar Morillas**  
5ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Miren Muñoz**  
5ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Aita.



**Nerea Nuñez**  
2an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Maite.



**Ayala Sasietza**  
3an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Irati, Ainhoa eta  
Markel.



**Oihan Ibarra**  
6an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxeokak eta Garazi.



**Rosi Alonso**  
3an 38 urte.  
Urte askotarako!  
Auskalo nor.



**Euken Azpeitia**  
4an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Eneko Arizaga**  
3an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Ama, Arantxa eta  
Maider.



**Aitor Garitano**  
8an urtebete.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta  
Amaia.



**Maddi Alberdi**  
8an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Ugarrixako familia.



**Borja Elkorobezibar**  
2an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Aita, ama eta Lara.



**Maddi Laskurain**  
4an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Iraia Olivas**  
5ean 8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Asier Eguren**  
4an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Agurtzane.



**Jone Fernandez**  
7an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak; batez ere,  
Ainhoa.



**Rosa Martinez**  
2an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Igor eta  
familiakokak.



**Maria Jesus Elias**  
2an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Bilobak eta  
familiakoak.



**Iosu Zezeaga**  
3an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Matxalen eta  
gurasoak.

*Hurrengo alean,  
martxoaren 9tik  
15era  
bitartekoan  
zorion agurrak  
argitaratuko  
ditugu.*

**jardunen agenda**



■ **Olinpiadak:** Domekan, martxoak 4; Gaztettoendako I. Olinpiaden hasiera. 16:00etatik aurrera, hockey txapelketa seminarioan. Zatozte animatzera!!

■ **Bergara ezagutzen:** Gaur, martxoak 2, '1.Batxilergoa'-'Txapuzeruak'.

■ **Kartzelako aisialdia:** Martxotik aurrera, olinpiadak direla eta, Kartzela zapatutan bakarrik zabalduko dugu.

**oharrak**

■ **1974an** jaiotako bazkaria martxoaren 17an Zabalan. Izena ematea (3.000 pezeta) Euskadiko Kutxan.

■ **1964an** jaiotako afaria martxoaren 24an Tartufon. Izena ematea plazako kioskoan.

■ **1954an** jaiotako afaria martxoaren 24an Azpeitxin. Izena ematea (2.000 pta) Azpeitxin eta Etxenagusian.

■ **1975an** jaiotako bazkaria martxoaren 24an Zabalan. Izena ematea (3.500 pta.) Kutxan.

ebankinter  
**Depositua**

**%**

(JARRI ZEUK INTERES-TASA)



**BANKINTER**  
www.ebankinter.com

**Informa zaituz**  
Herri Lagunak-2ko  
bulegoan

**14egunerako deposituen subastetako emaitzak**

ostirala, otsailaren 16a  
**%7,17** UTB  
Subastatu den zenbatekoa: 90 milioi

Astelehena, otsailaren 19a  
**%6,92** UTB  
Subastatu den zenbatekoa: 130 milioi

Asteartea, otsailaren 20a  
**%7,67** UTB  
Subastatu den zenbatekoa: 135 milioi

Asteazkena, otsailaren 21a  
**%6,71** UTB  
Subastatu den zenbatekoa: 150 milioi

Kapitalaren eta interesaren arriskurik gabe

Subasta bakoitzean adjudikatutako interesa, egindako pujen arabera da

## Udalak Agorrosingo kirol eremuaren azterketa geoteknikoa esleitu du

EHk eremua San Martin ikastetxera eta institutura zabaltzea eskatu du


**Astelehenean ohiko osoko bilkura izan zen. Bertan, beste gai batzuen artean, Agorrosingo kirol eremuaren azterlan geoteknikoa 'Ikerlur S.L.' enpresari esleitu zioten udal agintariek. Horrez gain, udal igerilekuetan egin beharreko lan osagarri batzuen aurrekontua ere onartu zuten. Igerilekuak martxoaren 15erako irekitzeko asmoa daukate.**

Astelehenean, hilak 26, egindako ohiko osoko bilkuran, Agorrosingo kirol eremuaren azterlan geoteknikoaren esleipena onartu zuten. 'Ikerlur S.L.' enpresari esleitu diote, 1.983.600 pezetako aurrekontuarekin. Esleipenak EAJ-EA, EH eta PSE-EE alderdien aldeko botoa jaso zuen.

Azterketa geoteknikoa egitea beharrezkotzat jo du udal arduradunek. Gogoratu, Agorrosinoren kirolgunea egiteko asmoa azaldu duela Udalak; iazko urrian, esaterako, kirolgunea egiteko ideia lehiaketa deitu zuen. Astelehenean, azterlan geoteknikoa egitea onartu zuten. Izan ere, antzina, eremu horretan kare meategia zegoen. Meategiko galeriak lur azpitik doaz, eta lur-jausi bat baino gehiago gertatu da, dagoeneko. Azterlan geoteknikoak, galeria horiek aurkitu eta sor ditzaketan lur-jausiak aztertu beharko ditu, segurtasuna bermatzeko bidean.



1997. urtean gertatu zen azken lur-jauzia Agorrosingo zelaietan.



Martxoaren 15erako irekiko dituzte igerilekuak.

1997. urtean 'Labein' enpresak beste azterketa geotekniko bat egin zuen Agorrosingo futbol zelaiaren azpian, bertan zuloa agertu zelako. Antza denez, Agorrosingo presa behera etorri zenetik ura sartzen da meategiko galerietan, eta horren ondorioz, lurrak, hondortzeko arriskua dauka.

### EREMU ZABALAGOA

Horren haritik, Jesus Mari Garitanok, EHren ordezkari

gisa, hainbat kezka azaldu zituen osoko bilkuran. Izan ere, astelehenean onartutako azterketaren eremua zabaltzeko beharra ikusten du EH taldeak. Hau da, azterketa Agorrosingo kirol eremura mugatu beharrean, San Martin ikastetxe eta instituturaino zabaltzea. Garitanoren esanetan, «galeriak nondik nora doazen jakiteko planorik ez dago, baina oso posible da San Martin eta institutu azpian ere ego-

tea. Kontuan hartu behar da, gainera, zenbat neska-mutiko ibiltzen diren bertan, eta arriskua ekiditea komenigarria da».

### UDAL IGERILEKUAK

Udal igerilekuak era egokian ireki ahal izateko, orain arte egindakoez gain, konponketa gehiago ere beharko ditu; estalkian korrea eta uralita berriak jartzea hain zuzen ere. Lan osagarri horiek 'Construcciones Metalicas Izpi SL'k egingo ditu, eta 1.262.057 pezetako aurrekontua dute. Martxoaren 15erako lana amaitu eta igerilekuak irekiko dituzte.

Gastua asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten EAJ-EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoaz. EHk, aldiz, aurka bozkatu zuen. Garitanok, EHko ordezkari gisa, botoaren azalpena emateko orduan adierazi zuen, ezezkoaren arrazoia esleipen zatikatuak egitean datzala. Urtarrilaren 29an egindako osoko bilkuran, dagoeneko, esleipen zatikatuen aurkako jarrera azaldu zuen EH taldeak. Garitanoren esanetan «Labein etxeak igerilekuen egoerari buruz egindako azterketa aztertu ondoren, garbi geratzen zen, esleipen gehiago egin beharra egongo zela, eta bidezkoa guztiak batera egitea da, ez zatika». Horrez gain, igerilekuetako langileekin izandako jarrera ere salatu zuen, «egun batetik bestera esan baitzitzaien lanari utzi beharko ziotela».

# Fraiskozuri plazan hogeita hiru farola berri jarri dituzte

**Fraiskozuri** plazako argiteria aldatu du Udalak. Farolak dagoeneko jarrita daude, baina argiteria aldatzeko proposamena asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten. Argiteriaren aldaketa EAJ-EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoarekin onartu zuten. EH alderdiak, aldiz, aurka bozkatu zuen. Botoa azaltzeko orduan Jesus Mari Garitano ordezkariak esan zuen, lan horien inguruko proiekturik ez dagoela, eta ondorioz ez dakitela zer lan egingo dituzten, zenbat balioko duen, zein farola mota jarriko dituzten..., ondorioz, euren botoa ezezkoa dela.

'Indalux' enpresa arduratu da farola berriak jartzeko, eta horien aurrekontua 8.171.330 pezetakoa da. Orotara 23 farola jarri dituzte. Farola horiek jartzeko 2000. urteko aurrekontuetan bost milioiko partida zegoen aurrez ikusita. Gainerako hiru milioiak 2001. urteko aurrekontuetan aurrez



Argazkikoak dira Fraiskozurir jarri dituzten farola berriak.

ikusteko asmoa zuen Udalak. Hala ere, gastu guztia aldi berean egitea erabaki zuten astelehenean.

## KOLDO ELEIZALDEKO UR-SAREA

Kaleetako obrekin jarraituz, Koldo Eleizalde kaleko ur-sarea konpontzeko proiektua eta baldintzak onartu zituen Udalak asteleheneko osoko bilkuran. Lizitazio oinarria 8.131.979 pezetakoa da, eta prozedura negoziatua

tuaren bidez esleituko dute lan hori. Interesatuta dauden enpresek martxoaren 5era arteko epea dute eskaintzak aurkezteko. Obrak kontratua izenpetzen den unetik 60 egunetan amaitu beharko dituzte.

Ur-sarea konpontzearekin batera, Koldo Eleizalde kalea zabaltzeko asmoa ere aztertu dute Udaleko teknikariek. Baina alde batera utzi dute gaia arazo teknikoak direla medio.

## Gaztelu eta 'Eltzikorta' bisitarik gabe

**Jose Migel** Gaztelu eta Jose Luis Erostege 'Eltzikorta' preso senideak aurrez-aurreko bisitarik gabe geratu ziren joan zen zapatuan. Senideen arabera, Alcalá-Mecoko espetxera zihozazela, Guardia Zibilak bi aldiz geratu zituen. Bigarrenean, El Molarreko komisariara eraman eta bertan miatu eta galdeketa egin zieten. Goizeko 11:30 aldera utzi zieten irteten. Ordurako, bi presoak ikusteko bisita ordua pasatuta zegoen. Espetxera heldu zirenean, sartzen ez uzteko agindua zutela ere adierazi zieten.

## Euroaren inguruko batzarra

**Udalak** antolatuta, eta dendariei zuzenduta, euroaren gaineko batzarra izango da martitzenean, martxoak 6, 14:30ean, kultura etxean.

## Jende ugari egubakoitzeko kontzentrazioan

**Joan den** egubakoitzean, hainbat lagun batu ziren San Martin plazan, 12:00etan, ETArekin atentatua salatzen. Jakingo duzuen bezala, joan den egunean, hilak 22, talde armatuak bi langile hil eta beste hiru lagun zauritu zituen, Martutenen jarritako auto-bonbaz. EH alderdiak ere ordu berean beste bilkura bat deituta zuen arren, zinegotziek erabaki zuten ez batzea.



# Saharako Gleibat Elfula-rekin senidetuko da Bergara

**Elkartasunerako** senidetzea izango da, eta helburu nagusia da Saharan geldi dagoen autodeterminaziorako erreferenduma bultzatu eta babestea. Bergarako ordezkari gisa Juanjo Arrieta, alkateordea, joango da Gleibat Elfula herrira, eta martxoaren 16tik 20ra bitartean izango da hantxe, elkartasunerako senidetzea sinatzeko. Senidetze akordioa asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten, eta Saharako errepublikaren 25. urteurrenarekin egin du bat.

Senidetzea Euskal Herriko legebiltzarreko 'Paz para el Sahara' taldeak bultzatu du. Dagoeneko, Euskal Herriko hainbat herrik sinatu dute hitzarmena. Hurbilean, Oñatik, esaterako. Bergara-



Gleibat Elfula herriaren irudi bat.

KONTZEJUPETIK

rekin batera, beste hogeitahirrik ere sinatuko dute senidetzea.

Nazio Batuen Erakundeak 1985ean onartu zuen Sahara herriaren autodeterminaziorako eskubidea, eta erreferenduma egiteko data

1992ko urtarrilerako ezarri zuen. Hala eta guztiz ere, hautesleen errolda behar bezala osatu ahal izateko, Marokok ezartzen zituen eragozpenen ondorioz, bertan behera geratu zen bozketak.

## Teilatuetako antenen ugaritzea aztertu zuten osoko bilkuran

**Asteleheneko** osoko bilkuran teilatuetako antenen ugaritzea aztertu zuten erregu eta galderen atalean. EHko ordezkariak ugaritze horren aurrean neurriak hartzea komeniko litzatekeela adierazi zuten. Euren hitzetan, Europako batzorde-

ak dio, antenak ezin direla eskola edota eritetxeetatik 100 metro baino gertuago egon, osasunarentzat kaltegarria delako. Hala ere, ez dago horren inguruko araurik. Gauzak horrela, antenak jartzeko baimenik ez ematea eskatu zuen EHk.

Mendietako antenen ugaritzea dela eta, Debagoienean horiek arautzeko azterketa egiten ari da LKS enpresa. Victoriano Gallastegi alkateak esan zuen, teilatuetako antenena ere aztertzeke, idatzi bat bidaliko duela bertara.

### Aparkatzeko txartela aldatu egingo dute

**Elbarriendako** aparkatzeko txartela arautzen duen dekretuak hainbat aldaketa izan ditu aplikazio eremuan. Txartela ere aldatu egingo da, eta maiztzerak arteko epea dago zaharra berriagatik aldatzeko. Aldatu ezean, oraingo txartelak ez du baliorik izango. Txartela Ongizate Zerbitzuan alda daiteke, txanda eskatuta telefono honetan: 943 77 91 65.

### Bergarako erroldak gora egin du

**2000ko** urtarrilaren 1eko datuen arabera, Bergaran 15.141 lagun bizi dira: 7.603 emakumezko eta 7.538 gizonzko. Hortaz, 1999an baino 33 biztanle gehiago ditu Bergarak.

### Anbulategiko ordutegi berria

**Hauxe da** ordutegi berria: astelehenetik egu-bakoitzera, 08:00etatik 17:00etara. Zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara.



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

*Agirrebeña*

*JATETXEA*



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

**Usoa Pub**



☎ 943 76 38 57

Irala 1





Behi ero-eroak!



Hau bai imajinazioa!



San Martin ikastetxeko ikasleak.



Mexikon e. euria!



The fire women...



Mariaren Lagundia ikastolako loreak.



Disneytik ihes egindakoak.



Gezurretako ala benetako punkiak?

## Elurbustia eta mozorroak

Aurten ere orotariko mozorroak ikusteko aukera izan dugu herriko kaleetan. Zelaietatik jaitsitako behi eroak, mexikarrak, loreak... Denetarik. Giro alai izan dugu nagusi inauteri egunetan; kaskarra, eguraldia. Sardinaren entierroa ere, elurra ari zela egin zuten baina prozesioan jarraitzailerik ez zen falta izan.



Aranzadi ikastolako goxokiak.

# Berrigara

442 zenbakia.  
2001eko martxoaren 2a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate,  
Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate,  
M. Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien,  
Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega,  
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &  
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre,  
Juan Martin Elexpuru, Arantzazu Oregi,  
Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk.  
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Txurrimulo elkarte.

Tirada: 5.400 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## atrebentzia ezpada

### Emakume langillien eguna da martxoaren 8xan. Berdinttasunaren bidian, zer dago oraindik lortzeko?



**Mari Jose Aranburu**

Lan munduan, esaterako,  
oraindik be ezberdintasun  
haundixak dare.  
Soziedadetan be, adibidez,  
badago zer lortu.



**Erkaitz Zipitria**

Badago oraindik zer lortu,  
alderdi askotan, gaiñera.



**Zigor Medina**

Lan munduan, esaterako,  
gauza asko dago lortzeko,  
ez dago berdintasunik.



**Pello Larrañaga**

Lantokixetan, batez be, ez  
dago berdintasunik. Etxian  
be nik uste dot oraindik  
ezberdintasunak badarela.



**Silva Sarmiento**



Batez be, etxian, familixan,  
gauzak aldatu biharra dago,  
ezberdintasunak emoten  
dira-eta oraindik.



**Jose Luis Marzan**

Gauza asko dago lortzeko:  
etxeko lanen kontua, lan  
munduan be bai...

## tira biraka oihan vega



adituen esanetan

## Nola izoztu produktuak

Lehenik eta behin kontuan hartu behar duguna da izozkailua bera zelakoa den. Lau izartxoduna izan behar da. Bestalde, honako aholku hauek ere kontuan hartzeakoak dira: gauza beroak ez dira izozkailuan sartu behar; izozten dugun janaria freskoa izan behar da, eta zati txikietan izoztu behar da. Iozzteko, onena da aluminiozko papera edo plastikoa erabilteza.

Bestalde, janari bat bigarren aldiz izoztu nahi baldin badugu, badaude kontuan hartu

beharreko hainbat alderdi: batetik, gordinen izoztu bada, berriro izozteko egosi egin behar dugu alde aurretik; baina, prestatutako produktu baten kasuan, ez da berriro izoztu behar.

Badago izoztu ezin daitekeen produkturik ere; hala nola, entsaladetako produktuak, esnea, jogurtak, maionesa, patata eta tipula.

Okelari dagokionez, ez dago inolako arazorik izozteko, baina, hori bai, ez da komeni zortzi edo hamabi hilabete



AMAIA AGIRRE

*Elikagaien teknologoa*

*«Badaude izoztu ezin daitezkeen produktuak; hala nola, entsaladetakoak, esnea, patata eta tipula»*

baino gehiagoz izoztua edukitzea, eta, gainera, gordinik izoztu behar da. Txerrikiak, berriz, sei edo zortzi hilabete. Arrainak ez du horrenbeste irauten, hiru hilabetez besterik ez da eduki behar izoztuta. Barrukoak, oster, sei hilabete.

Barazkiak urtebetean eduki daitezke izozkailuan, baina izoztu aurretik, galdarraztatu egin behar dira. Ura irakiten dagoenean, bertara bota, eta minutu bat igarotakoan, atera.


Frutak izoztea ez da oso ohikoa izaten, baina batzuk izoztu daitezke: adibidez, marrubiak eta gerezikiak.

Plater prestatuak, berriz, gehienez jota ere, hiru hilabetez edukiko ditugu.

Ogiak, gailetek eta bizkotxoek, esaterako, ez dute inolako arazorik, baina lau hilabete baino gehiago ez ditugu eduki behar izozkailuan.

Desiozoteko prozesua ere garrantzitsua da. Izan ere, izozkailutik hozkailura atera behar izaten da janaria, eta ez kanpora zuzenean.

kaleen izenak



1970. hamarkadako argazkia.

### Ariznoa plaza

Badakigu 1856an, gaur egungo Ariznoa plazak San Pedro plaza izena zuela. Plaza erabat aldatu zen epaitegia, kartzelak eta eskolak eraiki zituztenean, 1863tik aurrera. Bidenabar, ospitale zaharra ere bota egin zuten, oraingo Mizpirualde egoitza jandantik eginda zegoelako. Geroago, Goiko plaza jarri zioten, eta hurrengo aldaketa 1926ko irailaren 29an egindako bilkura agirian jasotzen da. Udalak, Hilzoriko Kristoa Bergarara iritsi zeneko III. mendeurrena ospatu nahi zuelako, Goiko plazari Juan de Yrazabal izena jartzea erabaki zuen.

Azkenik, 1980ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran egin zituzten aldaketan artean, Juan de Yrazabal plazari izena aldatzea dago, eta Ariznoa plaza deitzea erabaki zuten. Arrazoi historikoengatik, San Pedro elizaren aurrean dagoen plazari Ariznoa jartzea eta Santa Marina aurrekoari Oxirondo plaza jartzea erabaki zuten; horrela, Ariznoa, Bergarako hiriaren sorrerako toponimoa, eta Oxirondo elizatekoa gordetzen dira.

Erabaki horrek beste aldaketa batzuk ere eragin zituen: orduan, Ariznoa kalea zenari D. Irala jarri zioten eta Oxirondo kalea Matxiategi kalea izendatu zuten. Azkenik, Mizpirualde egoitzatik San Pedro elizara arte doan kaleari jarri zioten Juan de Irazabal izena.

**Testua:** Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

**Argazkia:** BUAK utzia (Roman Larrañaga fondoa).



Izozkailuaren ezaugarriak garrantzitsuak dira; lau izartxoduna izatea komeni da.

## Saharara irrati bat jartzera

**F**elipe Uriarte (eskuman) eta **Angel Elkoro** bergararrak Sahara aldera, **Tindoufeko** kanpamenduetara hain zuzen ere, joango dira bihar, zapatua, irrati emisora bat jartzeko beharrezko material guztia martxan ipintzera. Astebete egingo dute bertan. Ondo ezagutzen du Felipek Sahara eta **Fronte Polisario**koekin harreman handia dauka. Duela sei bat urte egon zen bertan azken aldiz.



## Elurra teilatuan...

Egia esan, ez zen etxeetako teilatuetaraino iritsi, baina karnabal martitzenarekin batera, iritsi zaizkigu **urteko lehen elur-malutak** Bergarara. Mozorroa jantzi eta kalean gora eta behera ibiltzeko ez zuen eguraldi onik egin, baina gustura hartu genuen aspaldian ikusi gabeko elurra ere. Zuritu, ez zuen zuritu; baina elurra zapaldu nahi duenak badauka aukera, Gorla aldera joanez gero, argazkietan ikus daitekeen moduan.

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34

**IRURAK PINTURAK S.L.**

ERA GUZTIETAKO LANAK    PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA    HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA    IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

**OILAGORRA**  
**TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

**CAMACHO**  
Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

**ETXE BERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**PINTXO eta BOKADILOAK**  
**SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzulako hamabostekaria, 74. zenbakia. 2001eko martxoaren 2a.*

## Gaztetzokoan begiraleak behar dira

### Zapatu eta domeketan zabalitzen da Gaztetzokoa

**Gaztetzokorako begiraleak behar direla eta, Antzulako Udalak begirale izan nahi dutenei deialdia ireki die. Begiraleekin lan poltsa bat eratu nahi dute eta, horregatik, martxoaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira eskabideak udaletxean edo liburutegian.**

**G**aur egun bost begirale ari dira Gaztetzokoan lanean eta txandak aritzen dira asteburuetan.

Lau urte dira Gaztetzokoa ireki zela Kaixon eta ordutik dihardue Silbiak eta Leirek begirale lanetan. Geroztik, ordea, beste hiru lagun ere badabilta begirale: Jon Tena, Maitane Goñi eta Mari Rios. Koordinatzaile lanetan Silbiak dihardu, eta berak aitortu digunez, «gustura ibili gara orain arte, baina jende berriaren beharra somatu dugu». Hirurogei bat haurrek eman zuten izena ikasturte honetan, baina ez dira guztiak batera joaten Kaixoko egoitzara: 25-30 bitartean elkartzen dira zapatuero eta domekero.

#### **EKINTZAK**

Koordinatzaileak adierazi digunez, «hasieratik gaur egunera aldatu egin da neurri batean begiraleen lana. Lehengo urtean Bergarako Jardun elkartearekin batera hasi ginen elkarlanean. Eurek esperientzia zuten gazteendako txokotan eta laguntza behar genuen Antzulan ere zerbait egiteko. Hurrengo pausua geuk geure kabuz Gaztetzokoa zuzentzea izan zen, eta horrela gabiltza azkenengo urteetan. Hala ere, begiraleak aldatzeko garaia dela ere ikusi dugu. Maitane eta Mari dira denbora gutxien daramatenak, baina beste hirurok hasieratik gabiltza eta ideiak ere agortu egin zaizkigu». Izan ere, haurrentzako denbo-



*Inauterietako zapatuan mozturro desfilea egin zuten Gaztetzokoan.*

rapasak antolatzen aritzen dira begiraleak eta asko izan dira Kaixon egin dituzten ekintzak. Inauterietan, esaterako, mozturro desfilea egin zuten. Martxoan olinpiadak eta herri kirolak egitekotan dira. «Kultur ekintza ugari egin izan dugu, baina orain kirola lantzen hasiko gara, aldatzeagatik. Jakina, Aste Santu ingururako akanpada antolatuko dugu, baina oraindik ez dugu lekua erabaki».

#### **BEGIRALE IZATEKO ESKAERA**

Begirale izateko eskabidea udaletxean edo liburutegian aurkeztu beharko da

martxoaren hirua baino lehen, eta horrekin batera lan esperientziaren berri eman beharko da. 18 urtetik gora izan beharko dute eta Antzulon bizi edo bertakoa izan beharko da. Euskara ahoz zein idatziz menderatzea eskatuko da, eta kontuan izango da haurrekin eta gazteekin zerikusia duten ikasketak edukitzea, esperientzia eta begirale titulua izatea, baina azkenengo hiru baldintzak ez dira beharrezkoak. Lana zapatu eta domeketan egingo da, orduan egoten delako zabalik Gaztetzokoa: arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

■ ■ ■  
Begirale izateko eskaerak udaletxean  
aurkeztu beharko dira  
■ ■ ■

# Karnabaletan, mozor

**E**gubakoitzean eskolako umeak, zapatuan gurasoak eta neska-mutikoak eta domekan, berriz, dantzari profesional eta amateurak irten ziren kalera ez ohizko erropekin. Karnabalak ondo baino hobeto ospatu zituzten antzularrek. Egubakoitzean Pausokako gurasoek txokolatada eta torradak banatu zituzten Zurrategin. Zapatuan ijito koa-drilla ederra ibili zen kalean gora eta behera eta domekan sorgin dantza ikusteko aukera izan genuen herriko kaleetan eta gero Herriko plazan.



Manex punkie txikia.



Punkiek Zurrategiko kioskoa hartu zuten.



Zapatuan ijito familia izan genuen bisitan.



Hauk bai monstruak.

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 943 76 62 96  
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43

**AITZ-GARBI**



taberna  
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

# o ugari!



*Txiki-txikitatik ohitura onak ikasten.*



*Monster familia ala zer da hau?*



*Txokolatada Pausokako gurasoek antolatu zuten.*



*Karnabaletako ohiturari jarraitu zioten dantzariak.*



*Halloween gaua liburutegian.*



*Txapel gorri eta ume txiki elkarrekin Zurrategin.*

**zabalo**  
IGELTSEROTZA  
Jose Luis Zabalo  
Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak  
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

**Igor eta Txomin**  
  
Margoak orokorrean  
ANTZUOLA 609 157 131  
BERGARA 609 150 164

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak  
Kalebarren, 1. ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**LEKU-BERRI MERENDEROA**  
Janariak eta edariak  
Tf. 943 76 60 94

**GRAFOLOGIA IKASTAROA  
ESKAINIKO DUTE BOST EGUNEZ**

Idazteko moduaren arabera norberaren izakeraz asko jakin daitekeela diote grafologoek: grafiaren edo idazkeraren neurriak, formak, makurdurak, lerroen norabideak, presioak, sinadurak... denek balio dute, jakinez gero, pertsonaren gainean zerbait jakiteko. Baina idazkera interpretatzen jakin egin behar da, eta horretarako aukera izango da martxoaren 3tik aurrera udaletxeko gobernu batzordeko gelan. Irune Ibarra grafologoak ikastaroa eskainiko du bost egunetan zehar: martxoaren 10, 17, 24 eta 31n eta apirilaren 7an. Eskola ordua 10:30etik 12:30era izango da eta izena emateko epea martxoaren 16an amaituko da. Interesatuak udaletxetik pasatu beharko dira.

**BAKE EPAILE BEBRIA BEHAR DELA  
ETA, IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO**

Bake epaile kargua hutsik geldituko da laster eta hori dela eta, izena emateko epea zabalik dago.

Lau urterako kargua izango da eta kontuan hartuko dena zera da: Antzuolan bizi eta adin nagusikoa izatea.

Bake epaileaz gain, ordezkoa ere izendatu behar da. Orain arte, bake epailea Anaje Egaña izan da eta berak azaldu digunez, «epe horretan bi ezkontza egin behar izan ditut. Bestelako lanik ez dut egin behar izan, hauteskundeetan izan ezik. Orduan botoak zenbatu eta gero, neuk eraman behar izan ditut agindutako lekura. Baina osterantzean, ez du lanik suposatzen bake epaile izateak». Izena emateko udaletxera joan beharko da lehenbailehen. Ez da behar aparteko titulurik. Goian aipatutako baldintzekin nahikoa izango da izena emateko bai bake epaile izateko zein bake epaile ordezko izateko.

# Sexuaz gehiago jakiteko antzerki lana zinean

**Gazteek** sexuaz dituzten kezkak argitzen saiatzen dira 'Vaiven' antzerki taldekoak *Lotsa Gabe* lanean. Baina horretarako umore zaindua erabiltzen dute eta abiapuntutzat honako galderak egi-

ten dizkiete euren buruei aktoreek: zelan egin behar da amodioa edo zer da HIESA? Baina, aldi berean, bestelako galdera batzuk ere plazaratzen dituzte: gorputzaren barruan tanpoia galdu deza-

ket? Zergatik da odola urdin kolorekoa konpresa iragarkietan? edo zakilaren tamainak garrantzirik badu?


Galdera hauek guztiek erantzuna izango dute martxoaren 10ean, orduan etorriko da-eta 'Vaiven' antzerki taldea Antzuolara. Emanaldia zinean izango da, gaueko 10:30ean.



'Vaiven' en Lotsa Gabe lana martxoaren 10ean.

## Errekaldeko lanak amaitzear

**Errekalde auzoan** egiten ari diren konponketa lanek aurrera darraite. Hasiera batean 25 milioi pezetako aurrekontua zuten lanek, baina beste 5 milioi gehiago onartu ditu udalak lanak amaitzeko. Izan ere, eskailerak konpondu behar dira eta baita auzoa inguratzeko duen harrizko baranda ere. Margotu egin dute baranda, argazkian ikus daitekeenez. Lanak bukatzeko, auzoaren goi aldean Iberdrolak duen depositoa konpontzea bakarrik geratuko da. Hala ere, lan horiek Iberdrolari dagozkio.



Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



**Mikelek ez dauka aparteko aurkezpen biharrik, azkenaldixan sekulako arrakastia lortu dau-eta Euskal Herrixan. Dana dala, ez dozue danok jakingo 29 urte dauzkala eta majisteritza ikasi zebala, eta peoi be ibilittakua dala.**

**Zein da zure arrakastaren sekretua?**

Ez dakit. Hasi nintzanean, zerbait esateko, zerbait egiteko, gai nintzela sinesten nuelako hasi nintzen. Dena dela, hasiera ez zen hain erraza izan.

**Zeintzuk dira bere alde onak?**

Gustatzen zaidana egiteko, eta, horrela, zoriontsu izateko aukera ematen didala.

**Eta ez hain onak?**

Batzutan egunerokotasuna puztu egiten dela. Anonimatoa galdu egiten duzu, eta deformazio txiki bat ematen da.

**Abestirik gustokuen?**

Gustoko abesti asko daukat.

Horri erantzutea oso nekeza da.

**Eta zeure abesti kuttunena?**

Kantu askorekin disfrutatzen dut.

**Aisialdian, zer egittia gustatzen jatzu?**

Pasiatzea eta begiratzea, obserbatzea.

**Txikittan zer izatia nahi ziñuan?**

Okina, ogia asko gustatzen zitzaidan eta; gero, berriz, futbolaria.

**Eta orain?**

Nahiko gustora nago naizenarekin.

**Bertsotan egitten jarraitzen dozu?**

Lagunartean, eta oso tarteka.

**Bertsolaririk gogokuen?**

Egaña eta Iturriaga.

**Liburu bat?**

Bernardo Atxagaren edozein.

**Parrandarako toki bat?**

Gasteiz; Bilbo bera ere bai. Hala ere, parranda gehienak Zornotzan egiten ditut.

# Mikel Urdangarin

**Eta emanaldi baterako?**

Elgeta.

**Zeñen hitzei jarriko zenieke musikia gustora?**

Idazle on asko dago hemen. Kalitate handia dago, eta musika jarriko niokeen testu asko dago.

**Eta zeñi abestuko zenioke?**

Zerbait esaten didan edozein edo edozerri.

**Gustoko janari bat?**

Paella.

**Asteburu baterako plan ideal bat?**

Lagunekin egon eta atsedean hartzea; Lekeitiora egunpasa joatea, esaterako.

**Nora ihes egingo ziñuke oporretan?**

Kubara.

**Eta zer eroango ziñuke zeurekin?**

Lagunen bat.

**Definittu zeure burua bi hitzetan.**

Indezisioz beteta dagoen gazte bat.

Humano bat, bere bertute eta miseriekin.

**Manixarik badaukazu?**

Edukiko dut, baina ez naiz maniatiko bat.

**Bestiengan, zer apreziatzen dozu?**

Zintzotasuna eta duintasuna.

**Amets bat?**

Bizitzan ahalik eta zoriontsuena izatea, horrek dakarren guztiarekin.



**POL-POL**  
Taberna  
943 76 07 78



**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**

**AGENTEA**

Ramon Maria Lili, 6-behea  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54



**IRAEGI**  
ASEGURUAK

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00



**Ur-bide**  
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617



# Alkoholzale anonimoak

Bergarako 'Intxorta' taldea hamalau lagunek osatzen dute

**Alkoholzale anonimoetako kide izateko baldintza bakarra edateari utzi nahi izatea da. Esaldi horrekin hasten da elkarte horretako edozein liburuxka. Baina, horixe izaten da, hain zuzen ere, alkoholzale batek eman beharreko pausorik nekezena: arazoaz ohartu eta alkohola edateari utzi nahi izatea. Behin hori eginda, Alkoholzale anonimoek zabalik dituzte ateak, nahi duen edozeinendako. Bergaran ere dozena bat lagun inguru elkartzen da astelehenero.**

**D**uela 65 urte sortu zen nazioarteko elkarte hori, Akronen, Estatu Batuetan. Bi alkoholzale elkartu eta euren arazoez

berba egiten hasi ziren. Hamabi ordu luzez berba egiten egon ondoren, bate-re ez zutela edan, eta, gainera, akordatu ere ez zirela egin ohartu ziren. Hori-xe da Alkoholzale Anonimoen oinarrietako bat: egoera berean, arazo berare-

kin, bizi direnak elkarri ulertu eta laguntzea. Bergarako Alkoholzale Anonimoetako kide baten esanetan, hori oso garrantzitsua da: «Familiak lagundu egin nahi dizu, baina inork ez zaitu hobeto ulertzen beste alkoholzale batek

**Afariak ematen ditugu**



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

**Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika**



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.  
ARRASATE. 943 71 25 08

baino, eta horixe da batzarretan topatzen duguna, egoera beretsuko jendea, eurekin berba egin ahal izateko».

### BERGARAN, INTXORTA

Bergarako taldeak 'Intxorta' izena du, eta hamalau bat lagun elkartzen dira astelehenero, kultura etxean, 20:00-etan. Denetarikoa jendea dago: emakumeak, gizonak, gazteak, zaharrak... Izan ere, eurek dioten moduan, «gaixotasunak ez du adinik, ezta klase sozialik ere». Batzar horiek elkarrekin berba egin, elkarri norberaren arazoak eta bi- zipenak kontatu, eta, era horretan, elkarri laguntzea dute helburu. Bergarako taldea 1963an sortu zen, eta ordutik hona, askok utzi diote edateari.

### GAIXOTASUN SENDAEZINA

Asko izan dira, bai, edateari uztea lortu dutenak. Baina, alkohola hor dago, eta alkoholismoak hor jarraitzen du. 'Intxorta'ko kide baten esanetan, «ni alkoholzalea naiz; hamabost bat urte daromatzat alkoholik probatu barik, baina alkoholzalea naiz». Izan ere, alkoholzale izateari ez zaio uzten, alkoholzale bat beti izango da alkoholzale. «Gaixotasuna lozorroan izan dezakezu, baina ez duzu inoiz hilko». Kontua da gaixotasun horrekin bizitzen ikasi behar duzula, edaten ez duen alkoholzale izaten. Terapia bakarrik elkarrekin egotea da; eta zera pentsatzea: «Bihar ez dut edango». Etorkizuna eta betiko berbak handiegiak dira. Izan ere, ezin jakin etzi edango ez duzunik.

S.Q. Intxortako kidearen esanetan, norberak onartu behar du alkoholzalea dela. Hau da, alkoholak norberak baino indar handiagoa duela. Baina, horretaz ohartu eta laguntza bila abiatzeko muturreko egoera baten ikusi behar duzu zeure burua. Hondoan jotzen duzunean gertatzen da hori; lehenago oso nekeza da pauso hori ematea. Asko kostatzen da puntu horretara iritsi eta pausoa ematea. «Gainera, zer esango duten, zelan begiratuko zaituzten eta horrelakoei garrantzi handia ematen diezu. Alkoholismo berba oso gogorra da, eta are gogorragoa da alkoholzale berba nor bere burua izendatzeko erabili beharra», diosku lagun honek.

### ANONIMOTASUNA

Elkartearen izenak berak dioten moduan, pertsona anonimoen elkarte bat da. Izan ere, oso gogorra da jendeak zer pentsatuko ote duen, zer esango duen... Intxortaren batzarretan esaten diren asko ez dira beste inon esaten. Eta han entzundako-

ak ez dituzte inon kontatzen, horixe da eta elkartearen arauetako bat. Batzarrak kultura etxean egiteko arrazoia ere horixe da. S. Q.k dioenez, «inork ez daki zertara zoazen hara: liburu bat hartzera, fotokopiak ateratzera edo Alkoholzale Anonimoen batzarretara».

### EDATEA HELBURU


Alkoholzale batek, uztea erabaki aurretik, jakina, edatea beste helbururik ez dauka. Jaikitzen denetik, horixe dauka buruan. Are gehiago, S. Q. Intxortako kideak azaltzen digun moduan, «ohean nengoela ere, iratzargailuak jotzeko desiratzen egoten nintzen, jaiki eta zerbait edatera joan ahal izateko». Gainera, beraren esanetan, alkoholzaleari bost axola dio edozerk eta edozeinek, edatea besterik ez du



**«Alkoholismoa lozorroan izan dezakezu, baina inoiz ez duzu hilko» S.Q.**

buruan. Hondoan jotzen duen une horretan, baina, zerbait egin beharrean dagoela pentsatzen duen unean, badauka nora jo; hor dauka Intxortako kideak laguntzeko prest, euren esanetan, «inoiz ez da eta berandu».<

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



**BANKINTER**

**%4,95** etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

\*Trekiera komisioa: %0,25. 35 urte bitartearaino

## Euskara errefortzuetarako boluntarioak

Jardun elkarteak euskara errefortzuetarako begirale boluntarioak behar ditu.

EGINKIZUNAK

Astean zehar ikastetxeetan haurrekin lan egitea.

AGIRIAK

Ikasturtearen buruan agiriak banatuko zaizkie boluntario denei.

ABANTAILAK

Jarduneko lan poltsan lehenetsuna izango dute aurkeztutako boluntarioek.

Interesatuok, eman izena Jardunen.  
Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g  
943 76 08 19



# Bergarako lau txirrindulari, afizionatu mailako CDR taldean

Arkaitz Mendizabal, Xabier Plazaola, Igoitz Gabilondo eta Jon Mendizabal bergar txirrindulariak afizionatu mailako CDR taldean izango dira hastear dagoen denboraldian. Astebukeraren lehen lasterketak izango dituzte.

Arkaitz Mendizabal du gu lauetatik bateranoena. 24 urte ditu eta aurten zazpigarren denboraldia egingo du afizionatuetan. Azken hiru urteak CDR taldean eman ditu. Bere hitzetan, «joan zen denboraldian, lehenbiziko zatian, nahiko ondo ibili nintzen, baina denboraldi bukaeran erreta nengoen». Jon Mendizabalek (20 urte), berriz, bigarren urtea egingo du afizionatuetan. Iaz denboraldi txukuna egin zuen eta aurten hobetzeko itxaropena dauka; «urtebeteko esperientzia daukat eta hori lagungarri izango zaidala uste dut. Hala ere, zaila da afizionatuetan destakatzea».

Xabier Plazaola eta Igoitz Gabilondo (biak 18 urtekoak) Lokatzako gazte taldean aritu ziren iaz eta aurten afizionatuetan debutatuko dute. Euren ustetan kategoria aldaketa nabarituiko dute; «erritmoa azkarra-



Argazkian, ezkerretik eskumara, Xabier Plazaola, Jon Mendizabal, Arkaitz Mendizabal eta Igoitz Gabilondo.

goa da afizionatuetan, eta erritmo horretara egokitu eta lasterketak bukatzearekin konformatzen gara». Lehen eta bigarren urteko afizionatuek Lehendakari txapelketako lasterketetan hartuko dute parte, eta Arkaitz, aldiz, Euskalduna txapelketan izango da. Maiatzean Bidasoako Itzulia jokatu da eta irailean Goierrikoa.

## GABONETATIK ENTRENATZEN

Lauak Gabon ostean hasi ziren bizikletan ibiltzen, au-

retetik gimnasioa eta igeriketa tartekatu zituztelarik. Arkaitzek ia 5.000 kilometro inguru egin ditu dagoeneko, Jon Mendizabalek 3.500, Xabier Plazaolak 3.100 eta Igoitz Gabilondok 2.000. Gehienetan, astebarruan, bakoitza bere kontura ibiltzen da, eta astebukeraren euren taldekideekin biltzen dira entrenatzeko. Astebukaera honetan lehiatzeari ekingo diote, Arkaitzek Laudion eta Xabier, Igoitz eta Jonek Atarrabian. Juanjo Sebastian da beraien zuzenda-

ria. Ez dago lider jakinik, eta sasoi onenean dagoenak aukera izan dezakeela diote.

## LOKATZAREN AURKEZPENA

Bestalde, bihar, zapatua, Lokatza Ziklismo Eskolako taldeen aurkezpena egingo dute. Goizeko 11etan aurtengo taldeen argazkiak atarako dituzte Usondo parkean, eta eguerdian, 12etan, aurkezpen publikoa egingo dute Kultura Etxean. Lokatzak bazkide eta zaletu guztiei bertan parte hartzeko dei egin die.

**Dixula**

**BOKATAK  
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

**URRATS**

TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK  
GAUETAN**

Ibargarai 4  
943 76 52 92

# Adostutakoa baino pilota jaialdi gutxiago iaz Bergaran

Aspe eta Asegarce pilota enpresek ez dute bete joan zen urtean Udalarekin sinatutako kontratua. Horren arabera, enpresa bakoitzak iaz, gutxienez, 12 pilota jaialdi antolatzeko konpromisoa hartu zuen, baina Asegarcek eta Aspek ez dute adostutakoa bete.

## KUDEAKETA KONPARTITUA

Joan zen urteko otsailaren 10ean sinatutako kontratuaren arabera, Asegarcek eta Aspek frontoiaren kudeaketa elkarrekin egitea adostu zuten. Enpresa bakoitzak, gutxienez, 12 pilota jaialdi programatzeko hitza eman zuen, baina ez dute esandakoa bete. Inigo Salbidea Asegarce Pilotako gerentearen arabera, «egia da agindutakoa baino jaialdi gutxiago egin ditugula Bergaran, baina egia da ere, jaialdiren bat antolatu izan dugunean, pilotazaleen erantzuna eskasa izan dela beste herri batzuekin konparatuz. Gure asmoa ez da Bergara-



Uste baino profesionalen jaialdi gutxiago izan ziren iaz Bergaran. ARTXIBOA

ko frontoia alde batera uztea, eta ea hemendik aurrera maila oneko partiduak antolatzeko gai izaten garen, eta zaletuen aldetik ere erantzun hobea jasotzen dugun». Aspe enpresak ere uste baino jaialdi gutxiago antolatu zuen iaz Bergaran, eta Aspeko zuzendariak oraindik ez dira udaleko ordezkariekin bildu aurtengo programazioa zehazteko. Kontuak kontu, Udal Pilotalekuan ez dute eskuz bina-

kako txapelketako partidurik jokatu, eta martxoaren 17an hasiko den eskuz banakako partiduren bat izatea ere zaila izango da.

Joan zen asteleheneko osoko bilkuran EH alderdiak bere kezka azaldu zuen pilota enpresek sinatutako akordioa bete ez zutelako, eta Victoriano Gallas-tegi alkatea Aspe eta Asegarceko ordezkariekin biltekotan geratu zen, arazoari irtenbide bat topatzeko.

## karteldegia

### FUTBOLA

**Bergara-Eibartarrak**  
Bigarren mailako kadeteak  
Zapatua. 12:00. Ipintza

### Bergara-Urola

Dhorezko mailako gazteak  
Zapatua. 16:30. Ipintza

### Bergara-Elgoibar

Neskak  
Zapatua. 18:15. Ipintza

### ESKUBALOIA

#### Bergara-Leitzarain

Jubenil mutilak  
Domeka. 12:15. Kiroldegia

### SASKIBALOIA

#### Bergara-Atl. San Sebastian

Senior mutilak  
Zapatua. 16:00. Kiroldegia

## Igerilekuetako gimnasioa zabalik

**Astelehenetik** zabalik dago berriz ere Agorrosingo igerilekuetako gimnasioa, ohiko ordutegiarekin. Bestalde, oraindik ere instalakuntzako sabaia konpontzeko lanetan ari dira. Kirol Zerbitzuko iturrien arabera, barruko igerilekuak martxoaren 15erako zabalduko dira.

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**KONDE PANADEROKUA**  
  
Burdinate, 1. 943 76 02 57

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA  
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.  
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telesforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

  
☎ 943 76 20 61

**MUJIKA** UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE  
FERRETERIA  
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA  
Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

**IKUSBI**  
ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK  
Irala 5 ☎ 943 76 53 09



# Labegaraietako futbito txapelketa

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Buya-Irubide .....	2-14
Pagomendi-Apa Oxemai .....	3-0

### B MULTZOA

Aterpe-Amilotx .....	5-1
Pinturas Bergara-Vacalouras .....	2-15

### C MULTZOA

Mongatxurrak-Patxaran Team .....	4-3
Latex-Guadalest .....	2-6
A Ze Flaxa-K.Piperrak .....	12-3

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN, BARRUAN

18:00: Torrekua-Eri .....	Ortzi
19:00: Ortzi-Bayer .....	Latex
20:00: Patxaran Team-Latex .....	Bayer

### DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Txipiron-Shaktale .....	Alum.Kresa.
10:30: Vacalouras-Alum. Kresala .....	Txipiron
16:00: Etengabe-Kanpazar .....	Irubide
17:00: Bar Ugarte-Irubide .....	Bildurbarek
18:00: Bildurbarek-Buya .....	K.Piperrak
19:00: Komando Piperrak-Artusamak .....	P. Bergara
20:00: Cine Bank Irimo-P. Bergara .....	Artusamak

### DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Guadalest-A Ze Flaxa .....	Amoskibar
12:30: Bar Canalejas-Amoskibar .....	Guadalest

## ARGI!

### Apa Oxemai taldea zigortuta

Pagomendiren aurkako partidura ez aurkezteagatik, Apa Oxemai taldeari partidua galdutuz eman diote eta, horrez gain, hiru puntu kendu dizkiote. Hurrengo batean, partidu bat jokatzerako edo arbitratzera aurkezten ez badira, txapelketatik kanporatuko dituztela adierazi dute antolatzaileek.

### Partidu bateko zigorra

Kanpazar taldeko Joseba Osoño jokalaria partidu bateko zigorra bete beharko du, hiru txartel hori ikusi ondoren.

### Amilotx, Latex

Amilotxek ez zuen maila onik erakutsi Aterpe liderraren aurka (1-5). Latex taldeak bere multzoko azken tokian jarraitzen du Guadalesten kontra galdu ondoren.

## mahoneroak



TXONAN GALLASTEGI  
BKEko jokalaria

Zapatuan Ondarroako Aurrera taldearen aurka galdu genuen Agorrosinen. Ez genuen partidu onik jokatu, baina beraiek ere ez zuten beste munduko ezer egin garaipena merezi izateko. Guk, berriz, ez genuen sartu izandako gol aukeretan eta, normalean, barkatzen due-nak ez du saririk izaten...

Lehen zatian 0-1 aurreratu ziren ondarrutarrak markagailuan eta Ander Berraondok banakoa egin zuen atsedendialdiaren aurretik. Bigarren zatian ere bi taldeok nahiko eskas aritu ginen, baina beraiek 1 eta 2koa sartu zuten partidua bukatzeko orduerdi inguru falta zela. Hortik aurrera asko presionatu genuen, baina zorterik gabe. Azken minutuan partidua berdintzeko zorian egon ginen.

Sailkapenean, erdialdean jarraitzen dugu, baina ezin dugu lorik hartu. Gu-txienez, 45 puntu lortu behar ditugu geratzen diren 11 partiduetan. Ea astebukaera honetan mailari eusteko urrats bat ematen dugun Gasteizen, Alaves C taldearen aurka.



**GORA eta BEHERA**



**Irubide, Vacalouras, A Ze Flaxa**  
Goian aipatutako hiru taldeek erraztasun osoz irabazi zituzten euren partiduak azken jardunaldian, aurkariei gol jarri eginez.

## SAILKAPENA

### A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	40	15
2. Errotagain	37	16
3. Pagomendi	29	16
4. Bar Canalejas	28	15
5. Bildurbarek Opel Lam	25	14
6. Amoskibar	24	15
7. Fac	23	15
8. Irubide jatebxea	14	15
9. Buya	14	15
10. Eri	13	16
11. Torrekua	9	16
12. Apa Oxemai	4	16

### B multzoa

	P	J
1. Aterpe	38	14
2. Ortzi	27	12
3. Aluminios Kresala	26	13
4. Kanpazar Harrobia	25	13
5. Amilotx	23	14
6. Pinturas Bergara	19	13
7. Bayer	14	13
8. Vacalouras	13	14
9. Cine Bank Irimo	7	14
10. Agirrebeña jatebxea	6	13
11. Etengabe	4	13

### C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	36	14
2. Guadalest	27	13
3. Artusamak	25	11
4. Mongatxurrak	24	12
5. Komando Piperrak	19	12
6. Txipiron	16	12
7. Shaktale	13	11
8. Patxaran Team	4	13
9. Latex	1	13

Informazio hau babesle hauei esker:

**ETXAGI**  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21      Zubillaga z/g  
BERGARA      OÑATI  
943 76 20 49      943 78 24 13

**Otsein**  
Saria

Ondarroako Aurrera taldearen aurka honako hauek nabarmendu ditugu:  
**Ander Berraondo**.....3 puntu  
**Arkaitz Arana**.....2 puntu  
**Txonan Gallastegi**.....1 puntu  
Etxeo partiduak bakarrik hartzen ditugu kontuan.



# Txorimalo lehiaketa

Bergaran Erramu zapatuan,  
apirilaren 7an.

## Sari bikainak!

- Edonork parte hartu dezake.
- Gehienez 8 partaide taldeko.
- Hiru maila: 14 urtera artekoak, 15-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak
- Izena emateko azken eguna apirilaren 2a.



### Anima zaitez!

Izen-ematea eta  
argibideak:


Kartzela Zaharra  
943 76 36 61 edo  
943 76 08 19



# mikel urdangarin

**Folk sustraiak.  
Sentimendua.  
Doinua.**

Martxoaren 3an,  
larunbata, 22:30ean  
Begarako  
Udal Pilotalekua




Sarrerak: 1.000 pezeta.  
750 pezeta (langabetuak  
eta 26 urtez beherakoak)



BERGARAKO UDALA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



## bonofotoa

Bergarako zein lekutan daude bi atari hauek?

## galde debalde

1. Noiz sortu zen Intxorta, alkoholzale anonimoen Bergarako elkarte?


- A- 1935ean
- B- 1993an
- C- 1963an

2. Noiz hartu zuen indarra Santu Martirixen egunak Osintxun?

- A- laz
- B- 1963an
- C- 1901ean

3. Saharako zein herrirekin senidetuko da martxoan Bergara?

- A- Gleibat-Elfularekin
- B- Asmara
- C- El Aiun



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Itsaso Goenagarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Itsasori!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **1924**

Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

### BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefona:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Leader Price**  
Oliba-olioa 1º, litroa

**289** PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



## Baserriko antzinako lan-tresnen erakusketa Osintxun

Auzoko baserrietako 500 tresna inguru egongo dira


**Baserriko antzinako lan-tresnen erakusketa gain, baserriko produktuen azoka eta artisauak ere egongo dira bihar, zapatua, Osintxun. Guztia, Emeterio eta Zeledonio santuen ospakizunarekin bat eginik.**

Santu Martirixen egunak azken urteetan gainbehera egin bazuen ere, hainbat herritarrek egun hori berpizteko erabakia hartu zuten iaz. Horrela, baserriko antzinako produktuen lehenengo erakusketa antolatuta zuten. Horrekin batera, baserriko produktuen azoka ere bai.

Aurten ere, iazko ildoari jarraiki, datorren zapatuan, Santu Martirixen egunarekin bat eginez, baserriko lan-erreminta zaharrak eta bertako produktuak ikusteko aukera izango da Osintxun.

### 500 LAN-TRESNA INGURU

Goizeko 10etatik arratsaldeko 7ak arte egongo da ikusgai baserriko antzinako lan-tresnen erakusketa Osintxuko pilotalekuan. Lixiba barrika, garia garbitzeko tor-nua, luistarren medailak... Erreminta ugari egongo da



Garai bateko tresnak ezagutzeko aukera emango du erakusketa. TXURRUMILO

erakusketan, 500 inguru, iaz baino ehun gehiago. Tresna guztiak Osintxuko baserrietan batutakoak dira, auzoko 27 baserrietakoak, hain zuzen ere. Bestalde, antzinako baserrietako logela bat ere egongo da ikusgai.

Tresnez gain, artisauak ere egongo dira erakusketan, hiru, guztira: bata haria egiten, bestea artilezko gal-tzerdiak egiten, eta hiruga-rra egurra lantzen.

### BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA

Osintxuko baserrietako produktuen azoka ere egongo da plazan. Goizeko 10etan hasi eta 14:30 arte egongo da irekita. Zortzi postu

egongo dira, garaiko produktuekin. Horrez gain, Txurumilo taldeak gazta eta gozogintza postua jarriko du, eta Paula Alberdi osintxuarrak bere pomada eta erremedioak erakutsiko ditu. Bestalde, plazan jarriko duten tabernan taloak salduko dituzte.

Horrez guztiaz gain, 13:00ak aldera, Moises Aspiazu taldeko dantzariak dantza saioa eskainiko dute plazan, eta Ainhoa eta Nerea trikitilariak kaleak alaituko dituzte egun osoan zehar.

Gauean, 21:00etan, bertso afaria egongo da. Bertsoetan, Zeberio eta Irazu bertsolariak arituko dira.

**Edurne Azuara  
'Hasiberriak'  
telesailan**

**ETB apirilaren 2an** emititzen hasiko den telesailerako aktore berria dugu. Bost pertsonaia nagusi izango ditu, eta bergararak horietako bat antzetzuko du: Lorena gaztea, hain zuzen ere. Duela bi aste hasi ziren grabatzen, eta Edurnek, batez beste, astean hirtan grabatzen du. Grabatzen hasi aurretik, aste eta erdi entseatzan eman zuten, «nor bere pertsonaia ezagutzen joateko», Edurneren esanetan. Bere pertsonaiaren gainean, oraindik gutiz ezagutzen ez duela aipatu du, baina, dagoeneko, antzeman dizkio gustuko eta ez horren gustuko ezaugarriak: «Alaia da, eta hori gustatzen zait, baina bestetik, ez du bere burua ezagutzen, noraezean dabil».



Edurne Azuara.

**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



## San Antonion, 1935. urtean

**S**an Antonioko neska-mutiko koadri-la bat agertzen da orain dela 66 urteko erretratu honetan. Argazkia gaur egun San Antonioko errotonda dagoen lekuan aterata dago eta neska-mutikoen jantziei erreparatzen badiegu, uda aldean eginikoa da argazkia, San Antonioko jaietan beharbada. Honako hauek dira dotore-dotore jantzita, bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Esther Farras, Amparo Astiazaran eta Pedro Unzurrunzaga.

**Jarrita:** Esmeralda Arriola, Lucia Farras, Imanol Astiazaran (Luciaren altxoan), Adela Farras, Felisa Martinez, eta Ignacio Unzurrunzaga (Felisaren altxoan).

*Argazkia: Juan Carlos Gallastegi*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu.

Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

# Bolu

liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurrira

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta

lumaxoak

Koldo Eleizalde 1, behea  
Tf. 943 76 70 60

*Zuri Beltz margoak*

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,  
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

**M**

**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

**Z**

**umelaga**

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

**Matxiategi 1**

943 76 72 73

**Mizpildi 8**

943 76 12 32



Gizonendako eta  
emakumeendako

Armani jeans

•

Replay

•

Guess

•

Antonio Miro

•

Amaya Arzuaga

•

Calvin Klein

•

Mr. Cat

**URKIOLA**

Bidekurutzeta, 42.  
943 76 16 48.

**Lois**

**CHEVIGNON**  
KIDS

NAFNAF

**KENZO**  
JUNGLE

**LIBERTE**

**oily**

**ELLE**  
CREATION

**CIMARRON**  
chico chica baby

**DKNY**

**QUIKSILVER**

CHIPIE

**OXBOW**



**UME**

ume eta gazteendako moda

Garibai, 6. ARRASATE. 943 79 97 86

**JAUNARTZEKO  
JANTZETAN  
ESKAITZA  
ZABALA!**

GRUPO

# RKUZ

1950-2001



**ETXE MOBEL**  
MUGELAK ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



**RKUZ**  
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



**RKUZ**  
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

**expert**



**RKUZ**  
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**

**FAGOR**

**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**